

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Juxe Zuazua Eguren

*Aretxabaleta,
Gipuzkoa
(1964)*

Aurkibidea



Biografia



Mari Jose du jaiotzako izena, baina Juxe deitzen diote guztiek. Galartza auzoko Egileor baserrian jaioa, aita bertakoa zuen eta ama Elorriokoa. Anaia bat dauka. Moja ikastetxean egin zituen ikasketak, erdaraz. Hitanoa etxean entzun du: gurasoek senideekin hika egiten zuten; amak hika egiten zion batzuetan, aita ez. Alabarekin ez, baina semearekin hika egin izan du Juxek. Mireia Arrietarekin batera elkarriketatu genuen; lankideak dira, Haur Eskolan.

Zintak

ARE-090

- **Proiektua:** Aretxabaletan hika
- **Elkarrizketatzailea(k):** Altolagirre Etxeberria, Maddi - Etxeberria, Idoia
- **Data:** 2024-11-06
- **Iraupena:** 75 min
- **Euskarria:** Bideo digitala
- **Kodifikatzailea:** Altolagirre Etxeberria, Maddi

Pasarteak

1. Familian entzun du hika

- **Erref:** ARE-090/012
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:13:44. **Bukatu:** 00:14:48
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Familian entzun izan du beti inguruan, nahiz eta Mireiari bezala, berari sekula ez dioten egin. Ama hasi zaio azkenaldian hika egiten.

2. Hika mantendu dadin bere alea jartzen

- **Erref:** ARE-090/013
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:14:48. **Bukatu:** 00:16:22
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Lau bat pertsonarekin hasi zen egiten hika, modu informalean. Gaur egun pertsona horiekin eta beste pare batekin egiten du. Garrantzitsua iruditzen zaio hika mantentzea eta bere alea jarri nahi du.

3. Seme alabekin hika?

- **Erref:** ARE-090/014
- **Iraupena:** 0:00:37. **Hasi:** 00:16:22. **Bukatu:** 00:16:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Semeak bazuen hika egiteko gogoia eta egiten zion zerbait. Alabarekin, aldiz, ez du ohiturarik.

4. Eskoriatzan eta Aretxabaletan gazteek hitanorik ez

- **Erref:** ARE-090/016
- **Iraupena:** 0:01:38. **Hasi:** 00:17:15. **Bukatu:** 00:18:53
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Eskoriatzan eta Aretxabaletan hika mutilek egiten dute batez ere, nahiz eta haiek ere gutxi egin. Adinari dagokionez, 27 urteko mutil gazte batzuek erabiltzen dute, baina arraroa da. Gazteek oso gutxi egiten dute hika orokorrean, euskaraz ere ez baita asko entzuten.

5. Hika egiteagatik komentariarik ez

- **Erref:** ARE-090/017
- **Iraupena:** 0:01:16. **Hasi:** 00:18:53. **Bukatu:** 00:20:09
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Konturatzen da jendea hika egiten dutela, baina ez diete normalean ezer esaten, ez txarrik, ez onik. Zaila izaten da kuadrilan beste inork egiten ez duenean, bakarren batekin hika egitea.

6. Hika, emakumeendako baldarra: baserritarrena

- **Erref:** ARE-090/018
- **Iraupena:** 0:01:34. **Hasi:** 00:20:09. **Bukatu:** 00:21:43
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Adinekoen artean, noizbehinka zakarra dela entzun izan du Mireiak, baina gutxitan. Hala ere, beraiek zuzenean entzun ez duten arren, fina ez den eta emakumeentzako baldarra izan daitekeen hizkera gisa jo izan da askotan. Baserritarren hizkera gisara.

7. Baserriko emakumeen konplexuak

- **Erref:** ARE-090/019
- **Iraupena:** 0:01:46. **Hasi:** 00:21:43. **Bukatu:** 00:23:29
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea
- Familia eta harremanak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Baserritarrek euskararekin ere nahiko konplexu zituzten jada. Kaletarrak baino gutxiago sentiarazten zieten.

8. Zergatik galdu den errazago emakumeen hika

- **Erref:** ARE-090/020
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:23:29. **Bukatu:** 00:26:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Emakumeak ez ziren baserritik ateratzen eta horrek asko eragin zuen emakumeen harreman sareetan, eta, beraz, komunikazioan.

9. Hitanoaren trasmisio-etenaren zergatia

- **Erref:** ARE-090/021
- **Iraupena:** 0:01:55. **Hasi:** 00:26:51. **Bukatu:** 00:28:46
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Baserria vs. Kalea

- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Konplejo puntu bat dagoela uste dute, euskararekin ere antzeko zerbait gertatu baitzen. Gaztelaraz egiten zuten askok euskara ez zelako zuzentzat hartzen. Beraz, hikarekin ere antzeko zerbait gertatzen zen.

10. Hitanoaren presentzia eskolan

- **Erref:** ARE-090/022
- **Iraupena:** 0:00:50. **Hasi:** 00:28:46. **Bukatu:** 00:29:36
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Tauletan agertu arren, hikak oso presentzia gutxi du eskoletan, baita euskalkietan ere. Herri bertakoek ere hartu zuten ohitura batuan egiteko euskalkian izan beharrean.

11. Aretxabaletako euskalkiarekin konplexuak?

- **Erref:** ARE-090/023
- **Iraupena:** 0:03:22. **Hasi:** 00:29:36. **Bukatu:** 00:32:58
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Familia eta harremanak » Herriko giroa » Herriaren nortasuna
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Goierrri aldekoak, zein Bizkaiko kostako eta barnealdeko euskalkiek fama edo estatus hobeak daukatela sentitzen dute. Izan ere, Aretxabaletako zein bailarako euskara nahasketa balitz bezala hartzen du jendeak. Eskoletan bertan ere ez zaio euskalkiari nahikoa garrantzia ematen. Ez da herriko hitz edo esamoldeak mantentzeko esfortzurik egiten. Txikienekin euskalkian hitz egiten dute. Gainera, identitatea ere emate dute euskalkiek.

12. Euskararekiko kontzientzia falta

- **Erref:** ARE-090/024
- **Iraupena:** 0:03:52. **Hasi:** 00:32:58. **Bukatu:** 00:36:50
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Euskara askoz gutxiago egiten da orain, bai haurren zein gurasoen partetik. Euskararekiko kontzientzia galdu egin da, edo kontrara, babes nahikoa duela uste denez, ardura falta handia nabari da.

13. Erderara jotzeko ohitura eta hizkuntza kontzientzia

- **Erref:** ARE-090/025
- **Iraupena:** 0:03:57. **Hasi:** 00:36:50. **Bukatu:** 00:40:47
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Euskararekiko sentimendua
- Euskara » Beste hizkuntzak eta hizkerak

Laburpena:

Mireiak ez du erdarara jotzeko ohiturarik izan. Kontrakoa gertatzen zen garai bat zen, euskararen berpizte eta mantentzearen kontzientzia handia zuten. Juxek, aldiz, espainolez ikasi zuenez, kuadrilakoekin hala egiteko ohitura zuen. Gizona ere erdalduna dauka, eta umeak txikiak zirenean saiatzen zen euskaraz egiten, hazten joan ahala, ordea, ohitura galdu zuen. Horrek ez du eragotzi, ordea, seme-alabak euskaraz bizitzea. Txikitan, aita erdaraz hitz egiten entzuten bazuen etxera bidaltzen zuen, euskara mantentzeko ahalegin gisa.

14. Hika ikastetxeetan?

- **Erref:** ARE-090/026
- **Iraupena:** 0:01:04. **Hasi:** 00:40:47. **Bukatu:** 00:41:51
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Oñatin ikastetxeetara hika bultzatzeko proiektu bat iritsi da. Garrantzitsua iruditzen zaie, ingelesa erakusten den bezala hika ere erakustea.

15. Hitanoa, altxor bat

- **Erref:** ARE-090/027
- **Iraupena:** 0:02:08. **Hasi:** 00:41:51. **Bukatu:** 00:43:59
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Hizkuntza informal baten beharra ikusten dute: gertutasuna adierazteko modu bat da, estimatzen duzun pertsona horrekin hitz egiteko modu bat. Hika bera ere, hizkuntza gisa, apreziatzen duten zerbait da. Etxearekin eta aurreko belaunaldiekin lotzen duten altxor bat.

16. Norbere buruarekin zuka

- **Erref:** ARE-090/033
- **Iraupena:** 0:00:30. **Hasi:** 00:48:47. **Bukatu:** 00:49:17
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara » Tratamenduak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Beraien buruarekin normalean zuka egiten dute, momentu jakin batzuetan kenduta. Ez daukate beraien gurasoek zeukaten erabilera, eta beraz, erraztasuna.

17. Gurasoek beraien artean zuka

- **Erref:** ARE-090/034
- **Iraupena:** 0:00:49. **Hasi:** 00:49:17. **Bukatu:** 00:50:06
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Gurasoek ez dute beraien artean hika egin inoiz. Senar-emazteen artean, orokorrean, errespetu faltaren seinale da hika egitea.

18. Idatzi gabeko arauak

- **Erref:** ARE-090/035
- **Iraupena:** 0:01:18. **Hasi:** 00:50:06. **Bukatu:** 00:51:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Euskara
- Euskara » Tratamenduak » Hitanoari buruz

Laburpena:

Ume txikiei eta adinekoei ezin zaie teoriarik hika egin. Arau horiek apurtzen joan dira denborarekin. Hikalaguna da hori argien eta eraginkorren ikusten den eremuetako bat, arauen apurtze horrek ekar ditzakeen onurak ikusteko.

19. Nola aldatu da emakumeen bizitza?

- **Erref:** ARE-090/037
- **Iraupena:** 0:02:25. **Hasi:** 00:52:59. **Bukatu:** 00:55:24
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Etxeko zereginak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Asko aldatu da emakumeen bizitza. Lehen etxeko lan guztiez arduratzeaz gain, baserriaz, erosketaz eta etxeko lan guztiez arduratu beharra zuen. Garai batean ez zituen baina lortu dituen eskubideak aipatzen dituzte.

20. Mugikor gabeko garaiak

- **Erref:** ARE-090/039
- **Iraupena:** 0:02:50. **Hasi:** 00:55:29. **Bukatu:** 00:58:19
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua
- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak

Laburpena:

Kalera irten eta lagunak bilatu beharra zegoen. Mireiak kabina erabiltzen zuen bueltan etxekoekin komunikatzeko. Oso denbora gutxian normalizatu da.

21. Galdu diren ohiturak

- **Erref:** ARE-090/040
- **Iraupena:** 0:02:35. **Hasi:** 00:58:19. **Bukatu:** 01:00:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua

Laburpena:

Txikiteoa galdu da, baita txikiteorak ere. Ogibideei erreparatuz, harginak, pinudiak botatzen zituztenak, baserritarrak beraiek ere desagertuz doaz.

22. Labadora al da asmakuntza onena?

- **Erref:** ARE-090/041
- **Iraupena:** 0:04:02. **Hasi:** 01:00:54. **Bukatu:** 01:04:56
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Herria, azpiegitura » Berrikuntzak » Aparatuak, objektuak
- Familia eta harremanak » Sexua eta generoa » Genero berdintasuna

Laburpena:

Labadora oso asmakuntza ona da, baina frigorifikoa apurtu zitzaion behin Juxeri eta benetan garrantzitsua dela konturatu zen. Bestetik, argindarrari oso lotuta gaudela ere uste dute. Arroparen erabilera ere aldatu da, eta asko. Erosotasuna ematen duten asmakuntzen beharra daukagu.

23. Eskolako kontuak

- **Erref:** ARE-090/043
- **Iraupena:** 0:04:00. **Hasi:** 01:05:10. **Bukatu:** 01:09:10
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua
- Ohiturak eta bizimodua » Hezkuntza » Eskola

Laburpena:

Juxeren garaian neskak eta mutilak banatzen zituzten eskolan. Mireiarenean

ez, baina amantal desberdinak jantzi behar zituzten. Ondo gogoratzen dira jangelako janariez ere. Juxek zorri garaiaz hitz egiten du. Espainolez egiten zuten, baina hurrengo mailakoak izan ziren euskaraz hasi eta ingelesa lehenengoz eman zutenak.

24. Militantzia eta konpromisoa lehen eta orain

- **Erref:** ARE-090/045
- **Iraupena:** 0:03:48. **Hasi:** 01:09:50. **Bukatu:** 01:13:38
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai

Gaia(k):

- Ohiturak eta bizimodua
- Aisia » Kultura » Herrigintza eta elkarteak
- Familia eta harremanak » Lagunartea eta familia » Gaztetako ibilerak

Laburpena:

Gazteen artean, gaur egun ere oso konprometituta daudela ikus daiteke. Hala ere, lehen antolatzen ziren auzolanetan gaur egungo gazteek ez dute hainbestetan parte hartzen. Bakoitzaren buruarengan pentsatzea lehenesten den mundu batean bizi baikara.

Ahotsak.eus-eko edukiarekin sortutako dokumentu automatikoa.
2025-12-29

CC-by-sa | Ahotsak.eus
Badihardugu Euskara Elkarte
Markeskua Jauregia, 20600 Eibar
943121775 - ahotsak@ahotsak.com